

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

321 - 2024ko OTSAILA



OPARI BAT



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteryen bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

Inauterietan, *indioz mozorrotu* ala *indio mozorrotu*?



Gaur egunera arte, ez da aurkitu -z mozorrotu egitura euskarazko tradizio idatzian. Egitura hau berri samarra dugunez, Ø mozorrotu egitura hobesten da. Honenbestez, egokiagoa da **indio mozorrotu** esatea *indioz mozorrotu* baino.

Bestetik, euskarak baditu gauza bera esateko beste egitura batzuk, hala nola, *indio jantzita*, *indio jantzia*, *indio mozorroan*... Literaturan, mozorrotu aditza bakarrik agertzen da gehienetan: *mozorrotuta joan zen kalera*.

Dena den, gaur egun -z mozorrotu egituraren erabilera nabarmen zabaldu denez, Euskaltzaindiak ontzat eman zuen honen erabilera. Hortaz, zuzena da *pailazoz mozorrotu* esatea; baina, *pailazo mozorrotu* forma hobetsi beharko genuke.

Azkenik, egitura honek *Nola mozorrotu zara?* galderari erantzuten dio, eta ez *Zertaz mozorrotu zara?*

MAILLOPE

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzti eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Ane Ubegun, Asier Arsuaga, Diego Mora, Elisabet Bezdicek, Juan Antonio Garaikoetxea, Juanluzenea sagardotegia, Julio Soto, Lore Azpirotz, Martixonea sagardotegia, Mikel Huarte, Xabi Azpirotz eta Yoli Vázquez.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02

ZUZEN ETA JATOR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
Albi-Irumugarrieta-Guardetxea

8

ELKARRIZKETA
Yoli Vázquez Medina



12

BATZARRE



14

ERREPORTAJEA
Etxetik, "etxe koendako"

18

KULTURA

23

KIROLA

28

PLAZATIK PLAZARA
Estela Véliz eta Ufredo Mora



31

AGENDA





Ane Eguzkitza Telletxea

Zorionak, Ane! Otsailaren 3an 5 urte! Aunitz urtez! Egun polita pasatuko dugula esperoz, muxu haundi bat familia guztiaren partez.

Beñat eta Lier Goikoetxea Arévalo

Otsailaren 1ean, 7 urte. Zorionak familikozen partez bikote polit honi! Ongi pasa eta muxu erraldoi bana!



Itxaso Oreja Altuna

Otsailaren 1ean, 9 urte. Urte askotako, politte!!! Ongi pasa zure eunean ta jaso muxu potolo bat denon partez!




Urtzi Argiñarena Saralegi

Otsailaren 5ean 11 urte. Urte askotako mattea, ongi pasa zure egune. Segi gure bizitza alaitzen, matte zattugu. Muxu pottolo bat.

Markel Iribarren Azpiroz

Otsailaren 15ean 1 urte. Segi zure irribarrearekin gure bizitzak alaitzen. ZORIONAK.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martineza, GARTZA, Nafarroa
Tel. 649 872 057 - faxa: 600 511 057
Mailoak.com - info@mailoak.com

TAXI
SOROA

609 168 217
Bederatzki plaza

PUBLIZITATEA
MAILOPEN

Labrit Multimedia
948 210 103
mailope@labrit.net

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



LAN HERIOTZA ARRIBEN

Etxebizitza bateko obra lanetan ari zela 8 metroko altueratik erorita hil zen Altsasuko 42 urteko langilea. Euskal Herrian 2023an, 59 pertsona hil ziren guztira lanean ari zirela, eta 2024ko lehen hiru asteetan, 9 izan dira hildakoak dagoeneko.



TAXI ZERBITZUAN MOLDAKETAK

Araitz, Errazkin eta Lezaetako biztanleen joan-etorriak errazteko diru laguntzak ematen dituzte udalek 2021. urtetik hona. Moldaketa batzuk egin dituzte: aurrerantzean, 5 euro ordaindu beharko dira bidaia bakoitzeko, eta taxilaria libre badago erabili ahaliko da zerbitzua bidaiari kopuruak prezioa baldintzatu gabe. Baldintza guztiak Araizko Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.



LARRAUN UDALERRIA UDALBILTZAN

Euskal Herri burujabe bat eraikitze-ko bidean, Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea ditu helburu nagusi. Horretarako, euskal lurraldea zatitzen duten hiru eremu administratiboetako udalen arteko elkar ezagutza eta lankidetzatza instituzionala bultzatzen ditu. Araitz bertako kide da eta Larraun ere bertan sartu berri da. 25 urte betetzear dituen egitasmoak 84 udal biltzen ditu.

► Lore Azpirotz Sustatxa (Astitz)



*Bi mila ta hogeitairuak
aldaketa batzuk nigan
zenbait gauza kendu dizkit
beste batzuk dizkit eman
Urtean zehar ibili
naiz pixka bat bai dilindan
erabaki eta dudak
maiz ero oro buruan*

*Urruneko lagunei
hitz polit batzuk nahi esan
laister elkar ikusiko
dugula seguru izan
Etxeko ta betikoei
egonen gara ihotetan
seguru bisurte honek
aukerak dituela bistan*

Doinua: Dena aldatzen da. **Hurrengoa:** Maite Lasarte Garcia (Lekunberri)

TAXILARIA

Ilunabar batean, oso ongi gogoratzen dut, bai, zer dela eta, nintzen ni, une hartan, Gazteluko plazan, Idoia Solá lankidearekin. Izan ere, Iruñeko Alde Zaharrean genbiltzala, gurpil aulkiaren atzeko gurpila zulatu eta erabat hustu egin zitzaidan. Gurpildun aulki motorduna neukan ordurako, baina, zoritxarrez, ez nuen erabiltzen, bizi ginen etxebizitza ez zegoelako egokitua sartzeko, ateratzeko eta abarrerako, horrexegatik, Idoiak bere burua eskaini zidan, ni etxeraino eramateko.

Gauzak hala, eta, gogoan hartuta, etxebizitza urruti gelditzen zitzaidala egoera trakets hartan haraino joateko, ba, orduan, taxi baten bila abiatzea erabaki genuen. Taxi-geralekura iritsi, eta, topatu genuen lehenengo gidariari eskatu genion gu etxera eramateko, baina, aitortu beharra daukat, taxilari harekin ez genuela batere zorte onik eduki, izan ere, uko egin zion gurekin kolaboratzeari, eta, zera esan zigun, batere lotsagorritu gabe:

-Begira, nahi baduzue, eramanen zaituztet, baina jakin behar duzue, ni ez nagoela inola ere behartuta zuei laguntzera, beraz, zuek ongi moldatzen baldin bazarete sartzeko eta ateratzeko, aulkia barne, ba, oso ongi, aurrera, baina, bestela, zuek ikusiko duzue zer egin, nik, behinik behin, ez dut asmorik, behatz bakar bat ere mugitzeko! -bota zigun ziplo.

-Lasai!, gurpil aulkia neronek sartuko dut eta! -esan zion hitzetik hortzera Idoiak erabakitasunez, eta, inola ere kikildu gabe.

Gauzak hala, adiskidea segituan mugitu, niri, autoan sartzen lagundu, eta, jarraian, gurpil aulkia maletategian jarri zuen, ongi tolestu ondoren. Behin denak barruan ginela, taxilariak automobila arrankatu eta ea nora eraman behar gintuen galdetu zigun. Etxeko helbidea jakinarazi bezain laster, abiatu eta Arrosadia auzora hasi ginen joaten. Idoia lankidea nirekin zetorren, behin etxe ondoan egonez gero, ni, beribiletik ateratzen lagundu eta etxebizitaraino eramateko.

Bidean gindoazela, Idoia eta biok, euskaraz hasi ginen hizketan gure artean, betiko moduan, halako ohitura geneukalako, eta, biok AEK-ko irakasleak izanik, guztiz normala, egia esateko, baina gidariak horri erreparatu bezain laster, erretxindu eta zera galdetu zigun ziztu bizian, Cervantesen hizkuntzan, gaitzespen kutsu

itsusi batekin:

-Zergatik egiten duzue euskaraz?
 -Euskaldunak garelako!
 -Iruñean, eta euskaldunak? Nongoak zarete, ba?
 -gizonak egoskor.
 -Ni, Etxarri Larraungoa, eta, Idoia, Iruñekoa.
 -Eta zer abizen dituzue, ba, euskaldunak izateko?
 -Nik, <Solá>, eta, Xantik, <Begiristain Madotz>
 -erantzun zion lankideak.
 -Uf!, ba, abizen horrekin, ezin haiz euskalduna izan!
 -ziurtatu zion gizonak Idoiari, are eta zapuztuagoa oraindik-, deitura hori ez baita hemengoa!; ez zekinat nongoa den, baina hemengoa, behintzat, Nafarroakoa, ez!
 -Eta, zerikusi dauka, ba, horrek euskalduna izatearekin?
 -galdetu zion Idoia Solák, serio samar jartzen hasita.
 -Zerikusi? Ba, zerikusi handia, noski! Ez baldin badaukan euskal abizenik, nola izanen haiz, ba, euskalduna, neska! Ezinezkoa dun, jakina! Hori, horrelaxe dun!; hor ez zagon buelta gehiago ematerik! -bota zigun gidari gizajoak, konbentzimendu osoarekin.

Idoiak eta biok, elkarri begiratu, eta, berehala ohartu ginen, jakintsu usteko hura, etnia eta hizkuntza kontzeptuak, modu baldarrean nahasten ari zela, beraz, bakean utzi, eta ez genion kasu gehiagorik egin. Etxebizitza parera iritsi ginenean, Idoiak, berriz ere, aulki gurpilduna autotik atera, zabaldu, niri bertan kokatzen lagundu eta hantxe gelditu zen gizon gazte hura, bere taxi barruan, marmarrean, eta guri deus ere lagundu gabe, noski!; nola bestela?

Harrigarria eta bitxia izan zen guretzat, halako pertsona gaztea ikustea, eta, horren atzerakoia zela konturatzea. <Asto handiak, astakeria handiak>.

Xanti Begiristain Madotz

TAXILON
 Lontxo Otamendi Artola
 661 202 249
 (9 plaza)
 E-posta: lotamendi5@gmail.com
 Atallu - Araitz

ALIPROX
 Lekunberri
 janaridenda
 hamabostaldi
 eskaintza bereziak

OTXOTORENA
 okindegia
 ARRIBE
 ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
 LEKUNBERRI - ARAITZ
 LARRAUN
 JALMENTIA ETA KONPONITZA
 634 551 743
 infoaralar@gmail.com

Erronkidea 19,
 Lekunberri
MARTILO TXIKI
 FORNISO ERABLE
 www.martilotxiki.com
 679 938 016

Hurrengoa:

Oihane Beloki Eguzkiza (Lekunberri)





**Elisabet Bezdicek Zubeldia
(Lekunberri)**

maite ditut maite gure bazterrak

Albi-Irumugarrieta- Guardetxea

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 15,4 km
Desnibela: 580 m
Zailtasuna: erdi mailakoa



Bidea:

- 1 Albiko aparkalekutik hasiko da bidea, bertan ikusi dezakegun langa berdetik. Hau pasatu ondoren, pista horri jarraituko diogu.
- 2 Argazkietan agertzen diren Kaputxinoaren hilarria eta Bustintzako bordatik pasatuko gara, zuhaitzez inguratutako paisaiaren barnetik.
- 3 Bidearekin jarraituz Txemiñe eta Beloki banatzen dituen lepora iritsiko gara, zeharkatu eta gero Aralarko pista nagusira jaitsi eta metro batzuk igoko ditugu pista hori utzi arte. Behin pista utzita eskuinera joko dugu, artzainen bidetik Intzako dorrearen norabidean.
- 4 Behin harkaitzetan, arrasto gorri zahar batzuk ikusiko ditugu, arrasto gorri jarraituko diegu kaskoraino. Garrantzitsua da aipatzea, hesi bat pasatu beharko dugula puntara iritsi baino lehen. Oso ikusgarria den harrizko horma zuria ikusiko dugu bertan, eta hau izango da mendi punta.
- 5 Hamaiketakoa jan, argazkiak atera eta paisaiaz gozatu ondoren, ezkeralderantz joko dugu argazkian ikusi daitekeen ikuspegiaren alderantz. Oraingoan marka zuri-horiei jarraituko diegu Aralarko pista nagusira iritsi arte.
- 6 Poste honetara iristean, eskuinerantz joko dugu, Igaratzako bidea hartuz. Errenagako putzua ikusiko dugu gure alboan, eta pistari jarraituko diogu Guardetxeko aparkalekura iritsi arte.

“Danborra gerra-arma baketsutzat hartzen dute”

Datorren maiatzaren 4an eta 5ean, batukada taldeen topaketa egingo da Lekunberrin eta Iruñeko La Farruka talde antolatzaileko partaidea da Yoli Vázquez Medina lekunberriarra.

Zer gustatzen zaizu batukadatik?

Talde barruan lortzera iritsi gaitzkeen batasuna, norbera jotzen eta jendea gozaten ikusten duzunean sortzen den sentsazioa...

Zein da batukadaren sorburua?

Batukada, bere horretan, Brasilgo folkloreaken parte da nahiz eta bere aurreko sustraiak, errealitatean, Afrikan izan. XV. mendetik XVI. mendera bitartean hasi zen esklabotzara kondenatutako pertsonen komertzioa, 400 urtez iraun eta 14.000.000 pertsona inguruk pairatu zutena. Kontinente amerikarrean utzi zuten arrastoa eta eragin kulturala izugarriak dira. Brasiler, etnia desberdinetako pertsonak iritsi ziren eta hiru multzotan sailka daitezke: batetik, Bantuak, Nksiak gurtzen zituztenak; bestetik, Yorubak, Orixak gurtzen zituztenak; eta azkenik, Fon eta Eweak, Yodunak

gurtzen zituztenak. Hiru talde etniko hauen nahasketa erlijioso eta kulturalak, katolikoarekin eta tupi-guaraniar indigenarekin batera, mendeen poderioz, hainbat erlijiori ireki zien bidea, besteak beste, kandombleari.

Bestalde, *batukada* hitzak *batuke* hitzean du jatorria etimologikoki: Brasilen mendeetan garatu zen afro moldeko erlijioetako bat. Afro moldeko erlijio horien bitartez, Brasilgo zona bakoitzak musika estilo ezberdinak garatu ditu. Pernambuko estatuan, *marakatua* dago, Brasilgo estilo zaharrenetako bat eta bi motatan banatzen da: *baque virado*

“Batukada Brasilgo folkloreaken parte da, nahiz eta sustraiak Afrikan izan”

marakatua edo *nação marakatua*, oinarria Kongoko eta Angolako errege eta erreginen koroatzean duena, eta *baque solto marakatua* edo *landa marakatua*, konnotazio erlijiosoak galdutuz eta nekazarien jaialdi bihurtu dena. Horrez gain, sanba dago, Bahiar Recôncavon jaiotzen bada ere, Rio de Janeiron kokatzen dena. Sanba horretatik sortzen dira beste guztiak, *sanba gogorra* adibidez. Bahiako estatuan zehar itzuli osoa eman eta gero, sanbaren moteltze erritmikoa gertatzen da, beste estilo batzuk garatuz, hala nola, *sanba afroa* edo *sanbareggaea* (reggaearen mugimendu jamaikarraren eraginekin, Jimmy Cliff edo Bob Marley bezalako pertsonaiekin besteak beste).

Estilo horiek guztiak oso lotuta daude politikarekin eta pertsona beltzen eskubideen aldarrikapenarekin. Danborra gerra-arma baketsutzat hartzen dute, horren bidez, kultu-askatasunetik askapenerainoko helmugak lortzen lagundu diena. Hain antzinakoak ez diren esklabotza garaiei herentziaz, gaur egun ere, haien eskubideen aldeko borrokarekin jarraitzeko eta oraindik existitzen den desoreka ekonomiko eta sozialari aurre egiteko erabiltzen da. Beraz, batukada bat entzuten denean, pentsatu behar da ez dela soilik pertsona talde bat danborrak jotzen; izan ere, atzean istorio handi eta aldi berean triste bat dago.





Allison AB. Farrufest 2023.
Argazkia: Moncho Muruzabalena.

La Farruka batukada taldetik, batukaden topaketa antolatzen ari zarete. Kontatuko diguzu nola sortu zen ideia?

2022an, La Farrukak 10 urte bete zituen eta modu berezian ospatu beharra zegoela pentsatu genuen, beste batukada batzuk gonbidatuz egun bat pasatzeko: elkar ezagutzuz, erritmoak partekatuz, eta *Danbor eta koreak* blokoaren eta *Olodum* bezalako hainbat formakuntza jo duen Junior Souza mestrearen eskutik, tailer bat jasoz. Pacote do Peloren semea da, eta hainbat urtez, *Olodumen* jo zuen berak ere. Topaketa horretatik halako esperientzia atera zen, non 2023an berriro egitea erabaki baitzen, eta aurreko aldiaren bezala, hain ongi pasa genuen, berriz ere errepikatuko dugula. Aurreko bi edizioak Sarrigurenen egin ziren arren, aurten Lekunberrira gatoz, urtero tokiz aldatzea eta Nafarroa osoko herri desberdinetara iristeko asmoa dugu eta.

Bi eguneko bilkura izanen da. Programaren barruan zer egongo den azaltzerik bai?

Larunbat goizean parte-hartzaileei harrera egin, kamiseta eta gainekoak eman, eta jarraian egingo den perkusio tailerrean, Sandra Ribeiro mestrarekin kontatzeko plazera izango dugu, zeinak hainbat instrumentu eta erritmo menderatzeaz gain, tinbau eta djembean espezializatutako perkusionista den. Neginho do Sam-

“Iluntzean, batukada guztiak aterako ditugu kalejiran, herri osoan zehar”



Yoli Vazquez Medina

barekin formatu zen, eta hark sartu zuen perkusio afro-brasildarraren munduan, 15 urte zituela. Carlinhos Brown, Cara de Cobra, Gabi Guedes, Luzinho do Jeje eta beste musikari batzuen errekonozimenduak jaso izan ditu. *Didá* taldeko kide izan zen, eta *Sodomu* proiektua zuzendu zuen. Gaur egun, emakumez osaturiko *Yaya Muxima* eta *Timbaladies* musika taldeetako kide da.

Bazkaldu ondoren, beste afro-urban dantza tailer bat egongo da, sustrai afrikarrak dituen Iruñeko Baobab dantza eskolako Ainhoa Carreraren eskutik. Iluntzean, batukada guztiak aterako ditugu kalejiran, herri osoan zehar, Sandrarekin ikasitako erritmoa batera joz, eta batukada bakoitzak bere erreperitorioa joz ere bai. Hor-tik, hasierako lekura itzuliko gara, afaldu eta *Sambastian* taldearekin sambaren erroldaz gozatzeko. Eta larunbateko jardunaldiari, DJ eta perkusionista den Mantra Selektahrekin emango diogu amaiera, zuzeneko kolaborazioekin lagunduta.

Igande goizean denok batera gosalduko dugu, eta jarraian timbauren errolda Allison ABren eskutik. 16 urte zituela *Acatutú* izeneko Klakibumeko haur taldeari, perkusio afro-brasildarreko saioak ematen hasiriko perkusio jolea da. Gaur egun, emakumez soilik osaturiko *Yewande* perkusio taldearekin eta Charly García perkusio musikariarekin jarraitzen du lanean (zeinak gaztetatik *Kilombo batukada* edo *Sambiosis* perkusio eskolako taldeetan parte hartu duen). Gaur egun, Giraboix taldeko eta Alacanteko Batucole gazte elkar-teko kide da. Horri gehitu behar zaio Allison ABekin batera, timbauko erroldan eta Mantra Selektahrekin, Uxua Echeverria izango dela kolaboratzaile. Ibilbide oparodun perkusio zuzendari eta hezitzailea da honakoa: Texasen, estatu mailako *Uil* saria jaso zuen marimba espezialitatean, Leire Colomorekin (Zetak) *Timbateras* taldea sortu zuen, *Niarawa Batucada* blokoaren sorkuntza eta garapenaren parte da, eta La Farruka, Barabatu, Beti Prest, Kukula Batuka eta Batuka and Aitas bezalako

taldeen irakaslea eta zuzentzailea da. 2022an, García Galdeano bezalako ikastetxeetan irakaskuntza-lerro berri bat hasi zuen guraso-elkarteen bidez gurasoentzako eta seme-alabentzako, eta Isterria ikastetxean gaitasun desberdinak dituzten haurrentzako perkusio-irakasle gisa ere bai. Olodum, Ile Aiye, Tinbalada, Didá, Banda Cafundo, Timbaladies, Cara de Cobra eta antzeko taldeetako kideen prestakuntza jaso du... Zerrenda bukaezina da.

Azkenik, bazkaria izango dugu gainerako batukadekin, jaialdiaren itxiera eta agurra.

Nork parte har dezake? Eta nola eman daiteke izena?

Edozein batukadari irekita dago, berdin du nondik datorren; Valladolid, Reus, Zaragoza, Bartzelona, Valentzia, Donostiatik... etorri izan dira. Nahiz eta batukada talde bateko kide ez izan, nahi duenari ere ematen zaio parte hartzeko aukera, betiere, bere instrumentua ekartzen badu. Topaketa honetan izen-emateko aukera otsailaren 4an irekiko da eta "La Farruka" instagram orrian egin daiteke.

Batukadek gero eta presentzia handiagoa dute hemengo festetan. Zuen taldeak, adibidez, zentratu lekutan jotzen du urtean?

Bada, 2023an 30 tokata izan ditugu eta era guztietakoak, herrietako jaiak, sanferminak, Halloween, Iruñe-



Karolen argazkia: La Farruka Berriozarren entseatzan.

"Nahi duenak eman dezake izena, betiere, bere instrumentua ekartzen badu"

ko Kulturen Kalejiran, bi urtez deitu gaituzte *Skyrhuneren* helmugako iritsierarako... baina era berean elkartasunez jotzera ere joan gara, adibidez, Iruñeko *Esperantzaren Telefonoa* taldearentzako, *ADANO*rentzako (haur onkologikoei laguntzeko elkar-*tea*), *Fenix* elkar-*te*arentzako (LGTBI+ errefuxiatuei eta etorkinei babesa emateko eta Nafarroako kolektibo minoritarioetako taldea)... *Mentalia Salud* bezalakoetan ere tailerrak egin dira adibidez...

Zer ezaugarri izan behar dira horrelako diziplina batean parte hartzeko?

Batukada talde gehienetan ez da jotzeko ezaugarri berezirik eska-

tzen. Argi dago musika entzumen bazu eta perkusio instrumentu bat hartzeko trebetasuna bazu plus bat dela, baina garrantzitsuen ikasteko gogoia, ondo egiteko interesa eta konpromisoa izatea da, bata bestearen menpe gaudelako.

Nola hasi zinen zu batukadarekin?

Bueno, hemen batukadaren bat ikusia nuen, baina Brasiler 3 hilabetez egindako bidaia batean txundituta gelditu nintzen benetan... Salvador de Bahian egon nintzen egunetan, arratsaldero batukadaren bat ateratzen zen eta, egia esan, kanpotik eta barrutik mugiarazten zaituzte. Lekunberrin nengoela, batukada bat sortu zela jakin nuen (*Batule*) eta hor hasi nintzen, baina 3 edo 4 hilabetera konfinamendua iritsi zen eta hori eta beste arrazoi batzuk zirela tarteko, desegin egin zen. Zuzentzen gintuen pertsona Donostiako beste batukada batean zegoen, ordea (*Taupada*), eta entseguetara joatera animatu ninduen. Ez nintzen damutu. Hasiera-hasieratik beso zabalik hartu

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

AMAIURU BAR
GITXIKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK
948504352

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Ustegi (Araitx)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



F. Moncho Muruzabalen argazkia: Farrufest 2023.

ninduten (jaietan eta Lekunberriko antzinako azokan 2 urtez jo dugu), eta bueno, urte eta erdi igaro ondoren, hor jarraitzen dut, eta kariño berezia diet guztiei.

Taupadarekin hasi eta lau hilabetera, beste batukada bat probatu eta beste erritmo batzuk ikasteko gogoz nengoen. Orduan jarri nintzen harremanetan *La Farrukarekin*. Urtebete egin berri dut *La Farrukan*, eta super gustura nago, barre asko egiten dut haiekin, oso jende ona dira eta asko ikasten da Uxuearekin. Aurretik ere egin dut haren lanaren eta prestakuntzaren laburpen bat (amaigabea da) eta gaineratu behar dut pertsona horrek edozein instrumentu jotzeko duen bertuteaz gain

“Brasilera 3 hilabetez egin-dako bidaia batean txundituta gelditu nintzen”

(nik uste dut besapean ogi batekin jaio beharrean, tinbau bat zuela batean eta baketak bestean), gozatu eta apasionatu egiten duela, eta hori transmititzen digula entsegu bakoitzean. Hari esker, *Cafundo* bandaren, *Didá* bandako Adriana Portelaren, Elton Jacksonen edo Sabrina Saracelliaren tailerrak jaso ahal izan ditugu...

Gehitu nahi zenukeen zerbait...

Izen-ematea kobratzen bada ere,

ez dugu nahikoa diru lortzen afari, gosari eta tailerrak ematera datozen adituen eta larunbat gauean etortzen diren musika-taldeen gastuak ordaintzeko. Sandra Ribeiro, adibidez, Salvador de Bahiatik dator... lazko topaketan 300 pertsona inguru egon ginen, aurrean agian gehiago, parte-hartzaile gehi ikustera etorriko den jendearekin. Azken hau kontuan izanik, edozein establezimendu komertzialek eta, batez ere, jatetxe-erlokoek, ezer ez dagoen asteburu batean baino diru-sarrera handiagoak lortuko dituzte. Horregatik eskertuko genuke edozein ekarpen ekonomiko edo espezietakoa eskertuko genuke (685 78 37 11).

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarria behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

aseguru gintza XXI

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal
akindogia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



EDUKIONTZI MARROIA LEKUNBERRIN

Auzokonposta guneak erabili edo etxean konposta egitea ziren orain arteko aukerak. Aurrerantzean, edukiontzi marroiak ere erabilgarri izango dira Lekunberrin zehar, hondakin organikoak hara botatzeko. Helburuak:

-2024. urtean, hondakin organikoen %50 berezita kudeatzea.

-2025. urtean, hondakin organikoen %75 berezita kudeatzea.




SAN MIGELGO SANTUTEGIA AGURTUZ


Mikel Garciandia Goñik 15 urtez bertan aritu eta gero, azken meza eman zuen, San Migelgo Santutegiko kapilau gisa. 40 zentimetroko elur geruzak hitzordua bi orduz atzeratu bazien ere, agur polita egin zioten, urte hauetako lana eskertzeko. Aurrerantzean, Palentziako gotzain izango da Etxarri Aranazkoa.

ESERLEKU BERRIAK JAIAN JAI PILOTALEKUAN

Lekunberriko frontoia erosoago egiteko, 546 aulki jarri dituzte, 14,816,93€ aurrekontua izan duen proiektuaren bidez. Segurtasuna hobetzeko asmoz, eskaileretan laster, barandak ere jarriko dira.

Horrez gain, ahobatez onartu dira 2024ko aurrekontuak Lekunberriko udalean. Gastu energetikoan aurreratzeko, lbarberri Ikastetxeko eraikina isolatu eta kiroldegiko galdara aldatuko da, besteak beste.





ELKARRIZKETA INTERESGARRIA 'NAFARROAKO HITZA'-N

Mailopeko kolaboratzaile fidela den Xanti Begiristain elkarrizketatu berri du *Nafarroako Hitza*-k. Irakasle ohia, idazlea eta euskaltzale sutsua; Iruñeko zinegotzi ohia eta elbarrien eskubideen aldeko ekintzailea ere bada. 20 urteko gazte bat zenetik mugitzen da aulki gurpildunean. Euskaraldian bezala, beti izan dela "ahobizi" aipatu du, besteak beste.

SEGA BELARDIETARAKO DIRU LAGUNTZAK

Balio natural handikoak dira sega belardiak, flora aniztasun handia dutelako. Praktika intentsiboa egiten bada, larre horietan ez da beharrezko bioaniztasuna lortzen. Nekazaritza Politika Bateratuaren (gaztelaraz PAC) deklarazioa egiterakoan eska daiteke diru laguntza, apirilaren 30era bitarte.

ESPAZIOAK DEFENDATZEKO KOMUNITATEA

Euskal Herriko gaztetxe, gune autogestionatu, eta azken batean, langile kontrolpeko espazioen arteko elkartasuna antolatzeke, Defentsa Komunitatea osatzen dute hainbat gunek. Azken boladan, esaterako, Zestoako Gaztetxeak eta Goierriko Zentro Sozialistak epaiketak jasan berri dituzte, eta desalojo arriskuan daude. Elkartasun argazkia atera zuten Printzan, Bris eta Nakar taldeek emandako kontzertuen artean.



●● Gorka Urbizu Ruiz

Etxetik, “etxekoendako”

Gorka Urbizu lekunberriarak bakarkako bere aurreneko diskoa atera du: ‘Hasiera bat’. Hamar kantu “soil” bildu ditu 35 minutu inguru irauten duen lanean, eta, hilabete honen hondarrean abiatuko duen biraren aurretik, sorterrian bertan aurkeztu zuen lan berria ilbeltzaren 17an, Gabari gunean, etxekoen abaroan.

14



Ilbeltzaren 13ko iluntzean barrenak astindu zitzaizkien askori Gorka Urbizuk zerbait bazetorrela aditzera ematen zuten hiru argitalpen jarri zituenean Instagrameko bere kontuan. Atzerako kontaketa bat abiatu zuen gero beste batean, tik-tak hots eta guzti, eta zaleak airean jarri zituen horrek. “Gaur lo gutxi eginen dugu, baina irribarre batekin”, zioen komentarioetako batek. Ilbeltzaren 15ean ikusi zuen argia Urbizuren bakarkako aurreneko diskoak, *Hasiera bat* izenekoak. Xume aurkeztu zuen sare sozialetan: “Kaixo. Disko bat grabatu dut, eta plataformetan duzue jada”. Abailan etorri ziren erreakzioak, askori luze egin baitzaie itxaronaldia orain dela lau urte Berri Txarrak taldeak oholtzak utziko zituela iragarri zuenetik. “Hemen naiz berriro” hartatik, gelditu gabe aritu da lekunberriarra, han eta hemen elkarrizketak egiten, kantuak aurkezten, bira bat ere abiatuko du hilabete honen bukaeran, baina aurkezpen guztietan aurrenekoa etxean bertan egitea erabaki zuen, inguruko babesean; ilbeltzaren 17an Larraungo Gabari gune irekian elkarrizketatu zuen Gazteako zuzendari Xabier Doncelek. Streaming bidez ere eman zuten elkarrizketa, eta Youtuben dago ikusgai.

Sarrera mugatua izan zen, eta Mitxausenea kultur etxean banatu zituzten gonbidapenak, elkarrizketaren bezperan. Hala ere, zortedun gutxi batzuek baino ez zuten lortu Gorka zuzenean ikustea, bost minutuan bukatu baitziren sarrera guztiak. Urduri sumatzen zen Gabari 17ko iluntzean, herritarrak gogotsu zeuden, jakin-minez, eta goxo hartu zituzten aurreneko

**“Kimatu” egin ditu abestiak,
eta aitortu askotan janztea
baino zailagoa dela kantuak
biluztea**

kantuko akordeak: *Janela bat* kantak mutu utzi zituen bertaratutakoak. Elkarrizketa abiatzeko bidea eman zion kantu horrek Donceli: “Zer da *janela* bat, Lekunberriko hitz bat”?, bota zion Gorkari. Entzuleek bazekiten ez zela hala, noski. Barre egin zuen Gorkak, eta argitu portugesez *leiho* esan nahi duela, eta gustatzen zitzaiolako erabili zuela, besterik gabe. Are, hasieran *leiho* erabili zuen kantuan, baina azkenean “lizentzia poetiko” hori hartu eta aldatu egin zuen.

Baina ez zituen izenburu horrekin bakarrik izan buruhaustea Urbizuk. Kontatu zuen diskoaren *master*-a jaso ondoren, hau da, grabazio originala Los Angelesetik bidali eta gero, izenburu guzti-guztiak aldatu zituela; ordu txikitik, goizeko hiruretan okurritu zitzaion tituluei “bat” gehitzearen kontu hori. Eta halaxe jaio ziren denak: *Maitasun bat*, *Teoria bat*, *Tren bat*, *Toki bat*, *Janela bat*, *Kolore bat*, *Lilura bat*, *Etxe bat*, *Sute bat* eta *Besterik ez*. Bueno, ez: *Toki sekretu bat* izena zuen berez diskoko laugarrenak, elkarrizketan ere nahi gabe hala deitu baitzion kantu horri. Abesti nahiko lasaia dira denak ere; azaldu zuen “kimatu” egin dituela, “soildu”, eta askotan abestiak janztea baino zailagoa dela biluztea, bere horretan ematea. “Oso gordina da disko osoa, soila. Detaile gutxi dauka; ez dago efekturik, ez dauka distorsiorik”. Hala, sortze prozesua



Diskoko irudia



Elkarrizketan

“aktiboagoa eta interesgarriagoa” izan dela gehitu zuen. Instrumentuen aldetik ere nabaritzen da hori, eta, hain justu, horrek egiten du berezi lana hein batean; izan ere, aitortu zuenez, batera grabatu dutenak ez dira batera joleak (Ferran Palau artista katalana izan da tartean, besteak beste), eta ahotsa bera eta baxua dira

diskoko zutabe nagusiak. “Hitza eta ahotsa dira garrantzitsuenak”.

Aitorpen bat edo beste ere egin zuen: esate baterako, *Kolore bat* abestiak ez zuen konbentzitzen, eta diskotik kentzea ere pasatu zitzaion burutik, baina ekoizleek lan berrian sartzeraren animatu zuten azkenean. *Lilura bat*



16

Mitxasenean jendea sarrerak erosi nahian, Argakia, Mikel Huarterena.

Bere buruari bakarkako lan bat zor ziola sentitzen zuen

azken esaldia, disko osoa biribiltzen duena: "Batzutan 'I love you' idazten diogu elkarri./ 'Maite zaitut batek'/ ikaratzen gaitu./ Besterik ez". Eta hori ere ez da kasualitatea, diskoko aurreneko esaldiari bezainbesteko garrantzia ematen baitio azkenekoari artistak.

Lau urtez "nebulosan"

Sekretupean gorde nahi izan du Urbizuk *Hasiera bat*. Kontatu zuen "nebulosa batean" pasatu dituela azken lau urteak, deskantsatzen, bidaiatzen, kontzertu pila bat ikusten... "Abstraitzeko" beharra zuen. Baina sentitzen zuen bere buruari zor ziola bakarkako lan bat, nahiz eta ez den erabaki "erraza" izan harentzat bidaia honi ekitea. Bere buruari zor bai, baina nola ezin jakin, zein formatan: beste izen batekin agertzea ere okurritu zitzaion, "Gorka Urbizu" jarri beharrean. "Izan zitekeen *Zuhaitz gorria*", bota zuen brometan, baina agian ez zen hain broma. Aitortu baitzuen prozesu zamatsua izan dela Berri Txarrak-en itzaletik urruntzea, dena errazagoa zela "inor begira ez zegoenean". Baina,aldi

segur aski diskoko *beatlerianoena* zela esan zuen, The Beatles taldearen kutsurik handiena zuena, eta horren zergatia ere azaldu zuen: hilabeteak eman ditu goizetan, paseatu bitartean, The Beatles taldearen disko bat aditzen; arratsaldean, berriz, talde "modernoago" bat entzuten zuen, zeharo desberdina,

Sen Senra edota Olaia Inziarte, esate baterako. Eta diskoko azkena, *Besterik ez*, bukaerako soinu proba batean sortu zen, azken orduan, baina hasieratik argi ikusi zuen diskoari bukaera emanen zion kantua izanen zela; "kariño handia diot", esan zuen elkarrizketan. Kariñoarekin dago lotuta, hain zuzen, kantu horretako



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarkeoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

berean, entzulerik gabe ez dagoela musikarik, “batzuetan hori ahaztu egiten” dela, eta zortedun sentitzen dela alde horretatik.

Bidaide izandakoak ere ekarri zituen gogora, baita diskoa su txikian kozinatutako toki berezia ere. Lleidako Teatre de ca l’Eriken grabatu dute *Hasiera bat*, berez antzoki zahar bat den eta, besteak beste, estudio baten funtzioa egiten duen toki batean, zeinak “xarma berezia” baitu Gorkarentzat —1910eko eraikin bat da—. Ez zen ausaz ailegatu hara: “bat-bateko maitemin” batek eraman zuen Kataluniaraino. El Petit de Cal Eri taldearen musikarekin maitemindu zen orain dela urte batzuk, talde horren soinuarekin, hainbeste non Jordi Matas talde hartako kideetako baten atzetik hasi baitzen, ekoizlea baita hura. Harremanetan jarri, Gorkak bere asmoen berri eman, eta, halako batean, Matasek Lleidako Teatre de ca l’Eriken ateratako argazki bat bidali zion sakelakora: “Begira nor dabilen hemen gurekin”, idatzi zion Urbizuri. Big Thief taldea zen, lekunberriarrak asko estimatzen duen talde bat, eta berehala erabaki zuen zer egin: “Baietz esan nion neure buruari; seinale bat izan zen”. Eta halaxe joan zen Lleidara, Matas ekoizlearen laguntzaz diskoari forma ematera. Entsegu gutxi — estudioan sartu aurretik bi baino ez—, sentimendu asko eta apenas geruzarik duen diskoa ondu zuten horrela.

Bolada gorabeheratsua, “esperimental” bizi du denbora honetan; pentsa, elektronikarekin ere ibili da saltsan. Jaiotako pieza batzuk “kaxoian” gorde ditu, baina giltza badauka, eta zeinek daki: akaso ikusiko dute argia noizbait. Hain justu, diskoko kantuen artean printzarik bereziena igortzen duenarekin bukatu nahi izan zuen elkarrizketa, *Etxe bat* abestiarekin, eta ez zuen zalantzarik horretan: “Zein kantu joko duzu orain?”, galdetu zion Doncelek. Eta Gorkak ez zuen bi aldiz pentsatu: “Ba, hemen egonda, *Etxe bat* joko dut”. Diskoko kanturik pertsonalena akaso, agian “jendeari

batereinportakoezzitziola” iruditzen zitzaion bat, baina, zalantzarik gabe, “sugarra inoiz itzal ez dadin” erraietara ailegatzen diren horietako bat. Kanta amaitzean esandakoak ere hunkituko zituen segur aski hasierako ilaretan zeudenetako batzuk: “Nire gurasoendako; eskerrik asko”.

Bolada “esperimental” bat pasatu du; pentsa, elektronikarekin ere ibili da saltsan



Haurrentzako albumak sortzeko 2024ko Etxepare saria

Nafarroako Euskara Zerbitzuek antolatzen duten saria da honakoa, 2006. urtean abiatu zena. Haurrentzako album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira. Album ilustratu bezala ulertzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak. Obrak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 10ean, ostiralean, itxiko da eta sari bakarria emango da, 5.000 eurokoa. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du.

Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Izengoitiak izenpeturik egongo dira. Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm (zabalera) x 21cm (altuera) baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (babes-orriak, azala eta kontrazala kanpo). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne), eta gehienez 32 orrialdeko luzera izango dute, portada eta babesorriak barne.

Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa fisikoa zein digitala aurkeztu beharko dute. Lanak www.etxeparesaria.eus webgunearen bitartez aurkeztuko dira, horretarako prestatutako formularioaren bidez. Aholkatzen da fitxategiek 20 mega baino gehiago ez izatea. Egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete posta arrunt bidez epaimahaikideek jatorrizko lana ikus dezaten.



Diziplina positiboa lantzeko tailerra Ibarberrin

Gizarte Zerbitzuak, Guraso Elkarteak eta Eskolarek antolatu dute ikastaroa. Gurasoei zuzenduta dago eta seme-alaben heziketari buruzko kezak, zalantzak eta errespetuzko baliabideak partekatzeko gune seguru eta atsegina eskaini nahi zaie familiei. Formazio honen helburua bizipenetik ikasi eta aldaketara eramango gaituzten hausnarketak bultzatzea da (dinamika dibertigarri-ten oinarrituta).

Urtarrilaren 26an eman zen lehen saioa. Otsailaren 23an, martxoaren 22an, apirilaren 26an eta maiatzaren 24an izango dira hurrengoak, Ibarberrin bertan, 16:00-18:00 ordutegiarekin. Kamy Mateok zuzenduriko saio hauetan, adeitasunetik eta irmotasunetik abiatuta, familiek seme-alabak laguntzeko modua egokitze aukerak landu eta prozesua bideratzeko aukerak aztertuko dira.

Eduki hauek landuko dira:

- Diziplina positiboa: seme-alaben garunaren funtzionamendua. Zergatik egiten dute egiten dutena?
- Seme-alabak hobeto ulertzea. Portaera txarra laguntza eskaera gisa.
- Zigorra, sariak edo xantaiak. Ondorioengatik aldatuko ditugu?
- Gatazka garapen-aukera gisa.

Izena emateko:

948 600 694 edo ssbirurtzun.izabala@gmail.com


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884


German Lasarte
ARTEGONO
HARATEGIA
Aralar kalea 8
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia: 629 350 099
Arbe-Atalla

Gure eskualdeari buruzko galdera jolasa

Ezetz jakin! lehiaketa antolatu dute bigarren urtez Mintzakideko partaideek. Otsailaren 15etik 25era egingo da. 16 urtetik gorako edonork parte har dezake eta lehiakide bakoitzeko erantzun-orri bakarra onartuko da. Hauek dira sariak:

- 2 pertsonarentzako bazkaria edo afaria Juanluzenea sagardotegian.
- Antsona gazta bat.
- Korrika-ko kamiseta.



Nafarroako historiari buruzko ikastaroa

Aitor Pescador Medranok Nafarroako historiari buruzko 12 saio emango ditu gaztelaniaz, otsailean hasi eta maiatzera arte. Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan izango dira saioak, ostiraletan 19:30ean hasita. Lehen saioa otsailaren 16an izanen da. Toki mugatuak izango dira eta izena emateko idatzi kultura@lekunberri.eus posta elektronikora edo deitu 621 15 04 55 telefono zenbakira.



Gabonetako lehiaketaren sari emateak

Gabonetako argien lehiaketari dagokionez, hurrengoak izan ziren sarituak: Iciar Ochoa etxebizitzaren kategorian, Maite Zubillaga etxeenean eta Ana Arregui merkataritzakoan. Aurreko alean aipatu bezala, egutegiak osatzeko argazki lehiaketa Juan Miguel Fernándezek irabazi zuen, Erika Fernándezek egin zuen bigarren eta Iñaki Montesek hirugarren. Denak bateratuta, irribarretsu egin zuten sari banaketa.

Autoz noa unibertsitatera eta errudun sentitzen naiz

Autoz joaten naiz maiz unibertsitatera. Bai, "billabesaz" joan ninteko.

Badakizu zenbat kostatzen zaidan esaldi hori epairik eta errurik sentitu gabe esatea eta onartzea? Bai, tira. Ingurugiroa dela eta ez dela. Kutsadura dela. Norberaren ardura ere badela. Hori: hegazkinak ahalik eta gutxien hartzearena, bertako jakiak erostea, fast-fashion delakoa urrun mantentzearena... Halakoak.

Ba errudun, aizue.

Eta egia da: norbanako gisa badugu ardurarik. Aitzitik, "bainaz" betetako esaldiak dira hauek, onar dezagun.

Gero ikusten duzu Taylor Swift 138 tona CO2 isuri zituela bere bikotekidea ikusteko. Zer diren 138 tona? Ba 17 etxek hiru hilabetetan, batz bestea, egiten duten energia gastuarekin aldera daitezke, esaterako. Abeslariak, urtean, ia 8300 tona aieratzen ditu. Hortxe. Egin kalkuluak. Taylor Swift da, iaz Yard marketing enpresa ingelesak argitaratutako zerrendaren arabera, munduan gehien kutsatzen duen pertsona famatua.

Zerrenda horretan Steven Spielberg, Kim Kardashian, Oprah Winfrey eta Travis Scott bezalako izenak irakur ditzakegu.

Berriz diot. Hau ez dut arduragabekeriaren itsutzeko aitzakia gisa erabiliko. Baina, tira... pentsatzekoa eta salatzen ere bada nola askotan fokua (eta errua) guggan paratzen diguten goitik. Goikoak izanik errudun nagusiak. Zeinek bera nolako, besteak uste halako dio esaerak. Eta agian, baliteke, ziurrenik, arrazoirik ez zaio falta.



23. Korrika badator

Korrika Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko egitasmo erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEK euskaltegiaren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. 2024ko martxoaren 14an Irundik abiatu eta 24an helduko da Baionara. Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko da aurten, edo zehazki, Baxoa (Frantziako Estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua) eta Brebeta (Frantziako Gobernuak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma) euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak. *Harro herri* izango da aurtengo leloa eta Mursego taldeko Maite Arroitauregik konposatu du abestia, hitzak Amaia Astobizarenak izanik.

Gure eskualdetik martxoaren 19an pasatuko da, astear-tean. Beruete igaro ondoren, 15:00ak aldera, Aldaztik barrera sartuko da Korrika, jarraian Etxarri, Mugiro, Lekunberri eta Uitz gurutzatuz. Leitza aldera jarraituko du gero. Lasterka aritzeaz gain, Korrika kulturala ere izango dugu ordea, eta hurrengo bi ekitaldiak antolatu dira Gabarin, besteak beste:

Otsailaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, *Erdaldun Berrien Kluba* ikuskizuna.

Martxoaren 3an, arratsaldeko 18:00etan, bertso saio musikatua. Bertsolariak Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal



Martxoaren 3an ariko diren artistak

eta Julio Soto izango dira. Musikariak, berriz, Gari Otamendi (gitarra) eta Ixaak Arruti (bibolina).

Azkenik, aldi honetako ekitaldietara kit osoarekin joan nahi bada, arropa berria Larraungo AEK euskaltegian erosi daiteke, Lekunberriin.



Txotx garaia abian da

Nafarroako ekoizleek Lekarozen ospatu zuten aurtengo irekiera, eta ordudanik, Aldazko Martitxonea, Oderizko Juanluzenea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek ere ekin diote denboraldiari. Ateak irekitzerako dei eta enkar-gu mordo bat egin zieten, eta jendeak gogoz ekin die txotx ondoko ohiturei. Asteburueta-ko zenbait egun bete xamar daukate jada; beraz, joan nahi duenak bizkor ibili beharko du to-kia hartzeko. Martitxonean, esaterako, beren sagardoa egin ohi dute, eta oso pozik dago Inaxio Begiristain aurtengo uztarekin. Ma- dozko Perkatzenea baserrian ere, izen berdina daukan sagardoa ekoizten dute, bertako saga- rrekin. 2020an martxan jarri eta 2021az geroz- tik daukate salgai edari estimatua.



Martitxonea eta Juanluzeneak utzitako argazkiak



**JUANLUZENEAN
SAGARDOTEGIA**

**Sagardotegiko
menua**

Urtarriletik maiatzera

Ostiral gau eta asteburuetan

948604571
Oderitz



Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain



Aldatz
Nafarroa

948604607

Uitziko inauteriak, lehenak

Gorka Oreja eta Ana Aroma izan dira aurtengo maiordomoak. Hurrengo urtekoak Mainer Galartza eta Garazi Soroa izanen dira. Lehen igandean egiten zuten erronda, eta dagoeneko larunbatera aldatu dute, bi eguneko ospakizuna osatuz. Eguraldi ederrekin egin zuten errondaren ondoren, festa eginez borobildu zuten eguna elkarrean. Igandea berriz, lasaiagoa izan zen gosari eta bazkaritxoarekin.



22



Argazkiak, Xabi Azpirotz



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24



urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

Trail eskolako lehen irteera

Goiztiarrak mendi lasterkari taldeak trail eskolako lehen irteera egin zuen urtarrilean. 16 urtetik gorakoei eskainita, 8 kilometro eta 200 metroko desnibel positiboa zuen itzulia egin zuten. Aurrerantzean ere, horrelako deialdi gehiago egiteko asmoa daukate. Inguruan mendian lasterka aritzen den eta gustura ariko litzatekeen jende dezente dagoela sumatzen dute. Beldurrak kendu eta elkartuta aritzea polita izan litekeelakoan, atea irekita daude animatzen denarentzat. Goiztiarren artean egindako beste irteera bat da argazkikoa, eta taldean giro ederra dagoela begi bistakoa da. Horrez gain, AyerdiOreja fisioterapia eta osteopatia zerbitzuak, beste urtebetez behintzat, taldea babesten jarraituko du. 2024. urtean, Goiztiar bazkideei, 10 euroko beharpena egingo diete gainera kontsultako saioetan.



Bloke berriak Harrilatzen

Eskalatzeko bide berriak jarri dituzte, Baraibarko pilotalekuaren atzean dagoen, Harrilatzen aretoan. 2024 urtean bazkide izateko aukera ere irekita dago. Helduen kuota 50 eurokoa da eta 16 urtetik beherakoena 20 eurokoa. Izena eman edo informazioa eskatzeko harrilatzen.eskalada@gmail.com posta elektronikora idatzi.



Alex Txikon gurera

Ttutturre mendi taldeak eta Kirol Mankomunitateak antolatuta, Alex Txikon alpinista etorriko da eskualdera martxoaren 2an proiektzio-hitzaldi bat ematera. Bere bizipen eta esperientziak elkarbanatuko ditu bertaratzen direnekin. Hainbat zortzimilako egina da bizkaitarra, eta haietako batzuk, neguko baldintza gogorretan gainera. Azken saiakera esaterako, Annapurnan egin berri du. Elur jauzi eta arrisku egoerak bizi ostean ordea, hirugarren kanpalekuan zeukatzen materiala desagertu zitzairen, eta ezin izan zuten gailurrera iristeko ahaleginarekin jarraitu.

Ezagutza desorekatua?

Bolo-bolo dabil azken aldiaren inteligentzia artifizialen kontua. Segundo gutxitan egituratu dezakete edozein ezagutza, jakintza, diskurtso, arazo... Batzuentzat sekulako tresna, besteentzako tresna beldurgarri, orain dela denbora bat jakintza-aren inguruan ditudan pentsaerak baieztatzen dizkit egoerak.

Hezkuntza sistema klasikoan ikasi dut nik, non ezagutza "errepikatuz" ikasi dugun batez ere, zentzu gutxiarekin ikasiz eta denbora gutxira ahaztuz. Sareek ere aspaldi erakutsi dute ez dela balio handi bat ezagutza teorikoa izatea, hori erraz eskratu daitekeela. Tresna berri hauek hau indartzen dute, edozeinek eduki dezake orain behar duen informazioa esfortzu oso gutxiarekin.

Nonbait irakurri nuen, mundua liburuz betetako astoz betea dagoela, alegia, ezagutza zentzu gehiegi gabe errepikatzen dugun jakintsu bihurtzen ari garela. Sentitzen dut jakintza hori egiazkoa izateko, sakona, esperientzia batek lagundua joan behar duela. Zentzu sakona duen ikaskuntza, esperientziak eman didana dela.

Teoria behar badugu, segituan praktikan jartzeko izan dadila, hor sendotzeko, baieztatzeko, esperientzia gidatzeko... bestela, ez du gehiegi balio. Eta zer esan bestelako jakintzez, emozionalaz, afektiboaz... Pazientzia edukitzeaz, nire burua maitatzeaz, besteak errespetatzeaz... Hor ere badago jakintza garrantzitsu bat inteligentzia artifizialek nekez garatuko dutena, bakarrik gizakiarenak direlako inteligentzia horiek. Horien garaia gartzeko prest nago ni. Ezagutza desorekatua sentitzen dudalako, gehiegi buruetan, gutxiegi bihotz eta gorputzetan.




XVII. Araitz eta Beteluko kros oparoa

163 lasterkarik eman zuten izena guztira aurten. Horietatik, 15 bikote animatu ziren erreleboan egitera. Haurretan, berriz, 63 partaide egon ziren. Besteak beste, pasa den urtean baino emakume gehiagok hartu zuten parte, eta balorazio positiboa egin dute antolakuntzakoek. Nesketan, Nerea Murua Carrasco izan zen garaile; mutiletan, Antonio Abadía Beci; mistoan Carmen Martín Valderrama eta Markel Arbulu Dudagoitia; eta kadeteetan, Aitor Perurena. Eskualdeko lasterkari askok hartu zuten parte, eta hurrengo denborak egin zituzten.



Argazkiak Juan Antonio Garaikoetxearenak.




ESKUALDEKO NESKAK

IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Guratz Azpiroz Beunza	00:31:56	Uitzi
Lorea Burguete Mikeo	00:32:41	Lekunberri
Maddi Sotil Buldain	00:36:43	Betelu
Leire Olano Sotil	00:38:53	Betelu
Alaitz Olano Sotil	00:38:53	Betelu
Merixell Miralpeix Martí	00:41:30	Betelu
Mar Martinez de Rituerto Zeberio	00:45:21	Arribe



ESKUALDEKO MUTILAK

IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Raul Amatriain Arraiza	00:26:19	Uitzi
Xabier Satrustegi García	00:27:56	Errazkin
Ander Elizalde Zubillaga	00:29:07	Betelu
Joanes Rekalde Iraizoz	00:30:41	Betelu
Eneko Rekalde Iraizoz	00:31:51	Betelu
Ibai Soroa Mugerza	00:32:05	Arribe
Manex Saralegui Izaguirre	00:32:36	Betelu
Ander Garmendia Otermin	00:32:44	Betelu
Ander Mikeo Zinkunegi	00:32:46	Arribe
Julen Saralegui Izaguirre	00:33:47	Betelu
Ander Arraztio Saralegi	00:33:53	Betelu
Iñigo Gurrea Prados	00:34:19	Lekunberri
Imanol Estanga Arrizubieta	00:36:39	Lekunberri
Iñaki Elizalde Zubillaga	00:36:43	Betelu
Mattie Garaikoetxea Zubillaga	00:37:10	Betelu
Iñigo Garmendia Goikoetxea	00:37:48	Betelu
Julen Sotil Mikeo	00:37:51	Betelu
Mikel Zubillaga Areitio	00:38:36	Betelu
Josu Elizalde Zubillaga	00:39:15	Betelu
Carlos Mitxeltorena Arraztoa	00:41:15	Betelu
Santi Garmendia Goikoetxea	00:42:43	Betelu
Asier Elizalde Zubillaga	00:45:20	Betelu
Iñaki Satrustegi Gorostegi	00:47:15	Betelu



ESKUALDEKO KADETEAK

IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Conor Aranburu O'reilly	00:11:32	Betelu
Izei Goñi Martinikorena	00:12:33	Errazkin
Eros Paul Méndez Campos	00:13:30	Betelu
Mikel Buldain Garzaron	00:14:38	Betelu
Aner Arraztio Estanga	00:14:51	Betelu
Egoitz Oreja Altuna	00:15:14	Errazkin




SOTIL GARAIEA
BETELU
 948 513 007
 sotilgaraiea@gmail.com



ekin
 rotulación
 948 85 32 79

SAN MIGUEL
 Taberna-Jatetxea
 Arribe
 948 51 31 34



Maitasun lengoaiak

Besteak gu tratatzea gustatuko litzaigukeen bezala tratatu behar ditugula esaten da, baina hori premisa oker batetik abiatzen da. Aurreko artikuluan besarkadei buruz hitz egin genuen, eta, zalantzarik gabe, maitasunaren erakusgarri dira, eta abantaila asko dituzte, hala ere, pertsona guztiei ez zaizkie besarkadak gustatzen, eta guztientzat ez dira gauza bera, eta hemen sartzen gara gaur. Maitasuna transmititzeko modu desberdinak daude, eta norbaiten maitasunaren lengoaiak bezala ezagutzen dira. Honako hauek dira:

1

Hitzak

Beste bati animoa, babesa, afektua, zoriontasuna, laudorioak, adeitasuna edo umiltasuna adieraztean maitasuna adierazten dugu. Ohiko komunikazio-trebetasunak funtsezkoak diren maitasun-hizkuntzetako bat da. Batzuetan pentsatu gabe esaten diren hitzak dira, eta oso eragin positiboa dute beste pertsonarengan; autoestimua, segurtasuna eta ongizatea areagotzen dituzte.

la denok gogoratzen ditugu gure bizitzak markatu zituzten hitz iheskorrik. Esaldi zuzen, sinple eta sendoak erabiltzea gomendatzen da: "Izugarri maite zaitut, benetan"; "Asko gustatzen zait gauzak hain ondo azaltzen dituzunean". Baina, batez ere, garrantzitsua da sinesgarria izatea jasotzen duen pertsonarentzat, eta, horretarako, ezinbestekoa da transmititzen duen pertsonak benetan sentitzea.

2

Kalitatezko denbora

Presaren gizartean bizi gara, eta horrek, merkatuak sortutako behar faltuekin batera (autorik onena izatea, bidaiak, etxea, etab.), ahaztuarazi egiten digu kalitatezko denborak benetan zer esan nahi duen. Kalitatezko denbora partekatzea ez da hainbeste ekitaldia (afari on bat jabetxe garestian), baizik eta gure maiteekin partekatzea; entzunez eta entzunez, presarik eta bestelako distraktorerik gabe. Ez dago beste helbururik pertsonarentzat, denbora hori nahi duen pertsonarekin partekatzea baino. Azken finean, pertsona batekin ireki eta eroso sentitzeko une komunik ez dugun maitasun harreman bat birtualki bakarrik existitzen da, eta ez da erabat gauzatzen.

3

Opariak

Badirudi opariaren esanahiak balioa galdu duela gizarte kontsumista batean: "Zenbat eta opari gehiago eta garestiago, orduan eta hobeto", diosku hark, haren beharra edo erabilgarritasuna alde batera utzita. Baina asko ados egongo zarete opari batzuek maitasun eta maitasun handia adierazten dutela pertsonak berak egina izateagatik



5

edo esfortzua erosteagatik. Horregatik, pertsona batzuentzat horrelako opariak maitasun adierazpen oso polita irudikatzen du; oparitzen dionak denbora eman du horretan ahalegintzen eta pentsatzen. Beste aldean, opari hori egiteko edo lortzeko lanean ari denak gozatu egiten du ideia duenetik, besteari oparia eman arte, irribarrea besterik itxaron gabe.

4

Zerbitzu egintzak

Pertsona bati zerbitzatu edo pertsona jakin batzuei mesede eginez atsegin ematea pozgarria da. Janaria prestatzea, garbitzea, gauzak konpontzea, lan astunenak egitea edo urruneko lekuetara joatea, zehatz-mehatz eta irribarrea aurpegi dutela egiten dituzten ekintzak dira, mesede edo berehalako erantzun konpentsatzailea itzuliko diozunik espero gabe. Ez da behar bat, ezta betebeharrak ere, besteari laguntzeko eskuzabaltasunez egiten den zerbaitez baizik.

Kontaktua fisikoa

Komunikatzeko modurik errazena eta zuzenena da. Elkar besarkatzea, elkarri musu ematea, elkar laztantzea, elkar ukitzea, sexu-harremanak izatea; bikotearen maitasuna transmititzeko eta jasotzeko moduak dira. Gainera, larruazalarekin kontaktua sentitzearen esperientziak aldaketak eragiten ditu gure gorputzak hormonak jariatzeko moduan, baita horretaz jabetzen ez bagara ere: bestearekiko gogobetetze-, erlaxazio- eta konfiantza-sentimenduak lotutakoak sortzen hasten gara. Pertsona batzuentzat kontaktu fisikoa da beren hizkuntza nagusia, horren bidez segurtasuna eta zoriontasuna sentitzen dute; eta hori gabe ez dira maitatuak sentitzen.

Hau oso ondo dago, baina zertarako balio dit honek guztiak? Beno, bakoitzak bere maitasunaren hizkuntza zein den jakitea da ideia, maitasun hori nola erakutsi behar diguten eskatzeko, eta gure maiteen maitasunaren hizkuntza zein den jakiteko, behar duten eta maitasun hori senti dezaten.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Jan, edan eta deskantsatzeko toki aparta

2023ko apirilaren 1ean hartu zituzten Beteluko taberna eta ostalua Estela Vélizek eta Ufredo Morak. Aurrez ere, ostalaritzan lan eginak dira eta herritarrek emandako babesarekin, oso ongi doazkie gauzak.

1999ko abenduan iritsi ziren Euskal Herrira eta 2016ko ekainean, berriz, Betelura. Herri honetara iritsi arte, ez ziren hain gustura sentitu. Ateak ireki, onartu eta hemengo parte sentiarazi dituzte, eta oso eskertuak daude horrekin, bai beraiengatik eta baita beren seme-alabengatik ere. Bakoitzak bere lagun taldea egin du, eta horrek, guraso bezala, oso ongi sentiarazten ditu.

2016 eta 2017 artean, urtebetez gutxi gorabehera, Beteluko tabernako sukaldeko laguntzaile moduan aritu zen lanean Estela. Ostalutako logeletako garbiketa eta mantenua ere egiten zituen. Ufredo, berriz,

Donostiako Okendo tabernan hasi zen ostalaritzako lanekin. Tolosako Frontoiko tabernan ere aritu zen, Anoetako Cheyenne jatetxean... eta beste hainbat lekutako langileek oporrak zituztenean ere, haien lekuan lan egin izan du. Sukaldeko laguntzaile eta ostalaritzako arloan beraz, bazuen esperientzia, baina logelen arloan ez eta emaztearen jakintza oso baliagarria izan da. Abentura berri honekin ausartu, eta bertan lanean dabilizan

Gero eta gusturago eta erosoago sentiarazi dituzte

guztien esfortzu eta sakrifizioari esker, momentuz gauzak oso ongi doazkie.


Nahiko gogorak eta zailak izan dira lehen hilabeteak, bizkar gainean motxila astun xamarra hartu berri dute eta: kezka dauzka, nobedadeak... eta negozio errentagarria zen edo ez jakin gabe egindako inbertsioa izan zen. Dena den, poliki-poliki motxila horren zama arintzen joan da, lortzen ari diren esperientziaren eta ibarreko herritarren partetik jasotako laguntzari esker. Gero eta gusturago eta erosoago sentiarazi dituzte, eta horrek egunerokoan, gauzak ongi egiten ari direla ikusarazi die, familia osoa langileekin batera egiten ari den esfortzu eta sakrifizioaren bidez, noski.

Astez, oso goiz esnatu eta tabernara joaten da Estela gauzak prestatzera, ateak irekitzean bezeroei behar bezalako arreta eman ahal izateko. Patata tortilla, esaterako, aurrez prestatzen hasi beharra dago, bezeroei egin berri eman ahal izateko. Goiza nahiko entretenitua izan ohi dute egia esan. Badira ireki berritan 9:00etan puntuan iristen diren bezeroak, jarraian batzuk lehenago eta besteak geroago. Telefono deiak ere izaten dira tarteko: eskarien harira, erreserbak egiteko, hornitzaileak... Bat eta beste, 13:00etan jantokia irekitzeko ordua iristen da. Hau guztia, ez dute bakarrik egiten noski. Taberna zein ostalutako lanak aurrera eramateko, langile oso onekin kontaktzen dute, guztien artean talde handia osatuz.

Ufredoren kasuan, berriz, lehenagotik zuen lanpostuan jarraitzen du, Wiskon alegia. Dena den, asteburuetan edota ahal duenean tabernan eta sukaldean laguntzen aritzen da, zerbitzua hobetzen laguntzeko asmoz, bai prestaketa eta baita azkartasunari dagokionez ere, besteak beste. Negozio honen bultzatzaileak izanik, besteentzat lan egitearekin alderatuz, esfortzu gehigarri bat egin beharra dagoela aipatzen du: "Ardura gehiago ditugu gure gain orain". Hasieratik jarritako aurreikuspen eta helburuak lortzen doaz, eta garapen horrekin jarraitzea



Ufredo Mora eta Estela Véliz



espero dute, eguneroko esfortzu eta lanarekin.

Astez askotariko menuak eskaintzen dituzte, enpresa txikietako langileentzat gehienbat, eta asteburuetan, berriz, ibarreko jendea etorri ohi da edo aurrez erreserbak egin ohi dituztenak. Oraindik ez dute urte oso bat osatu negozio berrian, eta zaila da lan gehien noiz izaten duten ziurtasunez esatea, baina azertuaren arabera, udan lan karga handiko egunak izan ohi dituzte eta orokorrean asteburuetan ere bai. Urtean zehar ibarrean antolatzen diren gainontzeko ospakizunek ere eragina dute haien jardunean: herriko festak, inauteriak, aste santuak, eguberriak, urte bukarrera, enpresek antolatutako otorduak... Une horietan konplexuagoa izan ohi da haien lana. Logeiei dagokienez, urte guztian zehar egon ohi da zerbitzua eskuragarri, Beteluko festetan kenduta. Festetan dauden ekintzekin eta soinuarekin, ezin dute bezeroak ongi deskantsatuko duenik ziurtatu eta horregatik hartu ohi dute zerbitzu hori ixteko erabakia.

Hartu-eman oso ona ari dira izaten bertaratzen direnekin

Aurrera begirako erronkei dagokieenez, eraberritzeko ahaleginetan eta dena atseginago egiteko anbizioz dabilta. Horrek ordea, aurretiaz denbora, planifikazioa eta langileekin ongi koordinatu beharra du baldintzat. Helburu askoren artean, askotan ezin dira ehuneko ehuneko guztiak bete, baina lokala hobetu eta bezeroak hobeki senti daitezen ahalegintzen dira, menuan esaterako, plater berriak sartu eta aldaketak eginez, bezeroek hauek dasta ditzaten.

Bezeroetako askorekin elkar ezagutza prozesu bat gertatzen ari da oraindik. Beste askorekin ordea, dagoeneko zazpi urtez Betelun bizi ondoren, harremana zuten aurretiaz. Umeek Araxes ikastetxean ikastearekin adibidez, jende asko ezagutu zuten. Beraien izaerari loturik, jarduera askotan parte hartu izan dute eta dagoeneko betelurrak dira beraiek ere. Orokorreran, hartu-eman oso ona ari dira izaten bertaratzen direnekin. Beraien kroketak, patata-tortila, arrain zopa goxoa, eguneko menua edota kartako plater askotarikoak... probatzera doan bakoitza eskertu nahi dute. Beteluko taberna eta ostatua ordea ez dute beraiek bakarrik osatzen, eta langile taldeko bakoitzaren laguntzari esker doa aurrera negozio txiki hau.

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES

TEILATUAK
 FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683
 Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
 📞 616 457 540
 ✉️ construccionesganarbe@gmail.com
 📞 636 827 846

Mailope Aldizkariko kazetari izan nahi duzu?

Pertsona euskalduna behar dugu Mailope Aldizkariko kazetari taldean aritzeko. Hilabetekariko edukiak proposatzea eta sortzea izanen da bere eginkizuna. Kontuan hartuko dira:

- ▶ Araitx, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea edota eskualdea eta herritarrak ezagutzea.
- ▶ Taldean lan egiteko gaitasuna.
- ▶ Mailope proiektuan jarduteko gogoia
- ▶ Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo euskara maila egiaztatzen duen titulu baliokidea izatea.
- ▶ Komunikazio arloan edo kulturgintzan esperientzia izatea edota horiekin lotutako ikasketak izatea.
- ▶ Gidabaimena eta autoa.

Interesa izanez gero, bidali zure hautagaitza proposamena mailope@labrit.net helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.



Bi lan eskaintza Arotz Enea Baserrian

Ikastetxeen udaleku edo egonaldiak gauzatzen dira bereziki Etxarri Larraungo baserri honetan. Astelehenetik ostegunera 9:30-15:00 eta 19:30-21:30 orduetegiarekin, eta ostiraletan 8:00-15:30 orduetegiarekin lan egiteko, garbiketa eta jantokiko laguntzailea behar dute, batetik. Euskara eta begirale titulua duen aisialdiko eta denbora libreko begiralea, bestetik. Interesatuak, bidali curriculumara tilintalan@tilintalan.es posta elektronikora.



Instalazio fotovoltaikorako deialdia zabaldu da

Ostots Araizko energia komunitatean, lehen instalazio fotovoltaiko partekatuaren proiektua abiaraztera doaz. Instalazioan parte hartu nahi duten herritarrei deia egin die beren datuak aurkeztu ditzaten. Jasotako datuak aztertu ondoren, lehen urratsa izango da instalazioa egokitzea parte hartzen dutenen beharren tamainara. Informazio gehiago ostots.eus webgunean.



▶ AGENDA

OTSAILA

*Inauterietako egitarauak kontrazalean.

2 - Ibarberri eskolako inauteria.

2 - 18:00 Mendialdeko txikien binakako pilota txapelketako finalak, Beteluko frontoian.

3 - Lekunberriko inauteriak.

4 - 17:00 Santa Ageda bezpera Betelun: herrian barna koplak abestu eta Zigari Elkartearen amaiera askari gozo batekin.

4 - Santa Ageda bezpera Larraunen:
16:30 Albasu. 17:30 Azpirotz. 18:30 Lekunberri. Bertan otamena egingo da.

9 - 10:00 Mitxausean: zaborra berrerabiliz musika tresnak sortzeko tailerra, 3-6 eta 6-12 urtekoei zuzendua. Izena emateko larbeleareuskaraz@iparmank.eus posta elektronikora idatzi.

10 - Azpirozko inauteriak.

10 - Aldazko inauteriak.

11 - Ttutturre eguna: Irañeta - Agiri - Ata - Oderitz eta Juanluzenea Sagardotegian bazkaria.

14-15 10:30-12:30 Ihauteri asteko sormen tailerrak Araizko udaletxean: Zientzia eta natura zaindu.

15-25 Gure eskualdeari buruzko *Ezetz jakin!* galdera jolasa. Parte hartzeko: <https://labur.eus/APJ80>

16 - 22:00 Kontzertuak Printzan: Etxekalte eta Lotu.

17 - Gorritiko inauteriak.

17 - Baraibarko inauteriak.

17 - 20:30 Bertso afaria Arribeko Elorri elkartearen: Julio Soto eta Iker Zubeldia. Txartelak Mari Tereren dendan eta gasolindegian.

24 - Beteluko inauteriak.

25 - Euskal Herriko Urmugako bigarren etapa: Urdunako mendatea - Nerbioiko ur jauzia - Corral gaina - Goiuri - Altubeko mendatea.

25 - 18:00 Korrika kulturalerako ikuskizuna Gabarin: Erdaldun Berrien Kluba.

28 - 10:00-13:00 Lekunberriko kontsumitzailearen udal bulegoan: dohaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa.

MARTXOA

2 - Proiekzio-hitzaldia: Alex Txikon.

3 - 18:00 Korrika kulturalerako bertso saio musikatua Gabarin. Bertsolariak Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto. Musikariak: Gari Otamendi (gitarra) eta Ixaak Arruti (bibolina).

9 - Gaintzako inauteriak.

▶ MERKATU TXIKIA

PLAN PLIN PLAN - 40 urte inguru eta noizean behin inguruko mendietara irteerak antolatu eta ibilaldiak elkarbanatzeko gogoz bazaude jarri harremanetan gurekin! 699107020 edo 644007796 (Ainara).

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ KLUBA

Amets Sorroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainetan

INAUTERIAK

LEKUNBERRI

Otsailak 2

12:00 Eskolako inauteria. Desfilea Ibarberri eskolatik herriko enparantzara. Bertan, emanaldiak eskainiko dira 14:00ak arte.

Otsailak 3

10:30 Hamarretakoa Jayan Jai frontoian.
12:00 Mozorro eta karrozen desfilea Iraunkorrek txarangak alaitua. Ondoren, txarangarekin erronda eta kalez-kalea herrian barna.
14:30 Bazkaria Jayan Jai frontoian. Ondoren, dantzaldia DJ Oixanirekin.
18:30 Herri inauteriaren kalejira Jayan Jai frontoitik herriko enparantzara. Bertan, Attezar-koren erretzea eta dantza herrikoiak.

AZPIROTZ. otsailak 10

9:30 Kafea elkartean. Ondoren, Lezaetara kalejira.
14:00 Bazkaria.
17:30 Desfilea herritik barrena.
19:00 Txokolatada.

AIDATZ. otsailak 10

9:30 Gosaria elkartean. Ondoren, kalejira.
14:30 Bazkaria elkartean. Ondoren, kalejira.
19:30 Ipurdilatzen erretzea.

GORRITI. otsailak 17

12:00 Kakomomori harrera zaratatsua.
12:30 Trikitilarikin poteoa.
14:30 Herriko etxen bazkarie.
19:00 Erronda herrian barrena.
20:00 Kakomomoren erretzea.
21:00 Afarie herriko etxen. Herriak jarriko du afari mokadue.
22:00 Musika herriko etxen.

BARAIBAR. otsailak 17

11:00 Hamaiketakoa.
12:30 Kalejira herritik trikitilariekin.
14:30 Bazkaria herriko ostatuan. Bazkaldu ondoren, jokuak.
18:30 Panpina erretzea.

BETELU. otsailak 24

10:00 Mozorroen eta karrozen desfilea.
10:30 Puska biltzea elektrotxarangarekin. Tarteetan, karrikadantza plazan.
15:00 Herri bazkaria frontoian. Ondoren, mozorro lehiaketa.
17:30 Dantzaldia Bide Batez taldearekin.
00:00 DJ Naza goizaldera arte.

GAINZA. martxoak 9

11:00 Puskabiltza trikitilariekin.
19:00 Poteo herrikoia.
21:00 Herri afaria Sonbelu elkartean.
00:30 DJ Andoni.